



PRESTATZEKO ETA HARTZEKO: OBARIOAK ESTIMULATZEKO TRATAMENDUA, GONAL-F®-REKIN

Obarioak estimulatzean, **obulazio anizkoitza** eragiten da hormonekin lotutako medikazioaren bidez. Prozesu hori laguntza bidezko ugalketa lortzeko egiten da, hala intseminazio artifizialaren nola in vitro intseminazioaren bitartez.

Jarraian, tratamendua ondo egiteko urratsak deskribatuko ditugu.

Gogoratu injekzioak edo injekzioek hozkailuan egon behar dutela eta hartu baino 10 minutu lehenago atera behar dituzula, giroko tenperatura lortzeko.

GARRANTZITSUA: Garbitu ongi eskuak eta prestatu erabiliko duzun materiala eskura izango duzun gainazal garbi baten gainean.

Egiatzatu medikuak agindutako medikazioa duzula.

MEDIKAMENTUA PRESTATZEA

Zabaldtu Gonol -f® medikamentuaren paketea. Aurrez kargatutako luma eta ziztadarako orratz batzuk aurkituko dituzu bertan.



Kendu estalkia lumari eta zigilua orratzari.



Jarri orratza medikamentuaren bolaluman, hura kiribilduz. Ondoren, kendu orratzaren kanpoko estalkia; orratzak barneko estalkia izango du oraindik.

Hartu behar duzun dosia finkatzeko, dosia hautatzeko diskoa biratu behar duzu, zure dosia bisorean agertu arte.



Bisorean berretsiko da dosia kargatu dela eta injektatzeko prest dagoela. (Kargatutako dosia finkatutako dosia baino txikiagoa bada, ez dago dosia osatzeko medikamentu nahikoa). Erabili beste Gonol-f® RFF Pen bat dosia osatzeko.



ADIBIDEA


Ez kezkatu medikamentuaren erreserborioan airerik badago.



MEDIKAMENTUA HARTZEA

Ez injeztatu medikamentua larruazala gorrituta, makatuta edo gogortuta dagoen leku batean.

Eskuarki, medikamentua abdomenaren aldean ematen da. Injeztoa jartzeko tokia aldatu behar da, eta abdomen-gerriko eskuinaldea eta ezkerraldea txandakatu.



Garbitu injeztoa jarriko duzun lekua, alkohola edo antzeko zerbaitekin erabiliz. Kendu barneko estalkia orratzari.



Heldu lumari esku batekin, eta beste eskuarekin hartu larruazal-toles handi bat hatz lodia eta hatz erakuslearen artean; ondoren, sartu orratza bertikalki (90°-ko angelua) eta oso-osorik larruazal-tolesetik.

Sakatu lumako botoi gorria medikamentua sartzeko. Eutsi orratzari larruazalean 10 segundo, botoia sakatuta duzula; hala, medikamentu guztia sartzen dela ziurtatuko duzu. Dosi osoa injeztatu dela jakingo duzu bisorean 0 zenbakia agertzen denean.



Askatu larruazal-tolesa orratza atera ondoren eta ez eman masajea; egin presio txikia ziztada-tokian, besterik ez.

Medikamentua hartu ondoren, jarri kontu handiz orratzaren kanpoko estalkia, eta askatu orratza. Baztertu orratza behar bezala ontzi egoki batean, eta **garbitu eskuak**.

Gorde medikamentua hozkailuan.

Baliteke zeinu txiki batzuk agertzea inguru horretan; normalak dira. Adibidez:

- Ingurua zertxobait narritatzea epe labur batean.
- Hematoma txiki bat ziztatu den inguruan.
- Arraroa iruditzen zaizun zeinurik edo sintomarik baduzu, esan medikuari edo erizainari.